



© KONTZERTUA

# Aurrekontu txikia, talentu handia



**Orkestraren zuzendaria:** Iker Sánchez (Opus Lirica Orkestra).  
**Abesbatzaren zuzendaria:** Jagoba Fadrique (Donostia Opera Abesbatza).  
**Bakarleriak:** M. Sala, A. Garmendia, C. San Martín, N. Guliashevili, A. Jal-Ladi, I. Fraile, J. Cabrero.

## MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

**E**maten du Donostian opera-denboraldia Musika Hamabostaldiarekin lotuta dagoela, jaialdi honetan bai betetzen delako Kursaal Auditorioa opera bat programatzen denean. Hortik aparte, urtean zehar Opus Liricak egindako saiakeretan jende gutxi ikusten dugu. Pena ikaragarria da, eta ulertezina. Benetan txalagarria da Opus Lirica elkarteak egiten duen esfortzua. Titulu ederrak eskaintzen ditu, bakarleri eraginkorrak ere bai, eta eszenaratze erakargarriak taula gainean jartzen dituzte. Orduan, zer gertatzen da? Agian marketing eza? Edo administrazioen babes eskasa? Auskalo. Baina, hori bai, eskaintako azken saioa disfrutagarria suertatu zen.

Mozarten *Txirula magikoa* opera dibertigarri eta zinez "magikoa" da. Kon-

positore austriarrak 35 urte zituenean estreinatu zuen maisulan hau. Obra berezia da, imajinazio musikal izugarria duena, eta masoneriatik hartutako erreferentzia ugari dituena. Opus Liricaren ekoizpen honetan, Nafarroako Ganbera Operarekin lankidetzan egindakoa, twist bat aurkitzen dugu, akzioa amets batean gertatzen baita. Hortik aparte, doitasunez jarraitzen da jatorrizko ideia.

Interpretazio onak aurkitu genituen. Rol konplikatuena, dudarik gabe, gauaren erreginarena da, eta Almudena Jal-Ladi sopranoak txukuntasunez bete zuen bere lana. Egia da agudoren batek behar den garbitasuna ez zuela izan, baina, tira, taxuz interpretatu zuen bere papera, eta deabruzko koloraturak ongi atera zituen. Nika Guliashevili baxua Sa-

## MOZARTEN "TXIRULA MAGIKOA" OPERA

OPUS LIRICA ORKESTRA

KURSAAL AUDITORIOA, OTSAILAK 23

rastro eraginkorra izan zen, ondo sartuta bere rolean. Halere, guztien gaintetik, abeslari distiratsuenak Marc Sala tenorea eta Ainhoa Garmendia sopranoa izan ziren. Marc Salaren ahotsa primeran egokitzen zen Taminoren tesitura. Oso tinbre gozo eta ederra du abeslari katalanak, eta ondo menderatzen du ahotsaren emisioa. Bestalde, Ainhoa Garmendia oso soprano segurua da, eta adierazkortasunez marraztu zuen Pamina xarmagarria.

Azpmarratu behar dut César San Martín baritonoaren lana, *Papageno* dibertigarri eta ondo antzeztua egin baitzuen. Bestalde, Irene Fraile sopranoak *Papagena* freskoa interpretatu zuen. Gainontzeko abeslariak, Donostia Opera Abesbatza eta Opus Lirica Orkestra doitasunez aritu ziren. Bikain, bada. ●